



Gabonetako azoka bereziena

PRODUKTUAK ▶ Eskaintza zabala zen atzo azoka guneean: barazkiak, Gabonetako apaingarriak, elikagaiak, edariak, gozoak...

EGUN OSOAN ▶ Lehendabizikoz, egun osoan izan ziren postuak; hala ere, goizean bildu zen jende gehien azoka guneean ▶ 6-7



Zerkausian. Askotariko produktuak aurki zitezkeen atzoko azokan; herriko hainbat gunetan jarri zituzten postuak, eta jendea goiz partean ibili zen bereziki. Argazkian, Zerkausia eta sariak. IMANOL GARCIA



Euskal Txerria. Pello Urdapilletaren animaliek ikusmina piztu zuten, batez ere bikien artean; Trianguloan zegoen postu hori. IMANOL GARCIA



Samaniegokoak. Azoka guneean hainbat ekitaldi ziren iragarrita; Samaniegokoek kantuan egin zuten, diskoa aurkezteko. INIGO TERRADILLOS

TOLOSA ▶

Cuerdoren abentura berriak, abiitzean

Fabiola Jubin neska-
lagunarekin doa ▶ 4-5

honekin
ziber ileapaindegia

943 67 22 44

Santa Maria plaza, 1
20400 TOLOSA

ASTELEHENA 20:

15:00-20:00

ASTEARTEA 21:

9:00-13:00

15:00-20:00

ASTEAZKENA 22:

9:00-13:00

15:00-20:00

OSTEGUNA 23:

9:00-20:00

(egun osoa irekita)

OSTIRALA 24:

7:30-15:00

gabon asteko ordutegia



LANDARRI, S.L.

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriaren proiektuak
- Hilerriaren eraldaketak
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilarriak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozermiakak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - TOLOSA

Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa, 9 behe -ORERETA- ERRETERIA

Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41

www.landarri.com • landarris.l@terra.es

UZTURRETIK ▶
AGUSTIN AMIANOIkatz
gutxitxo
daukat

Ikatz txondorra itzali berria dut eta dozenaka zaku bete ditut egur-ikatz bikainez. Nire asto leialari jarri diot lan ugari, merezi ez duen zama erantsiko diot aurten ere. Hortza handiak erakutsiz zeharka hitz egingo dit: «Hi, Olentzero, hik fama eta nik lana».

Baina ondo pentsatzen jarriz gero, zalantzak ditut herrira hurbildu edo bertan geratzen. Izan ere, ikatza banatzen hasten banaiz, ez zait guztientzat iritsiko, eta gainera hainbat eskaera ez naiz betetzeko gai izan. Eskaera nagusiak betetzera koan huts egin dut. Politikan dabilen jende gehiena aurrez sokatiran ibilitakoa dela uste dut, etzanda gora begira baitaude, amore emateko asmorik gabe; elkarrri begira jartzea ere ez dut lortu. Udal asko ez dira oraindik herritarrek nahi bezala osatu. Etxean nahi diren hainbat sende ez ditut gerturatu ere egin. Eta urrundu nahi diren aza-hosto koloreko jantzia duten horiek, turroia jan eta behin ere baino indartsuago itzuliko direlakoan nago. Ezinean dabilenak bere horretan jarraitu beharko du eta laguntza behar duenak gustura jasoko du inoren babesa. Mendititik gertuen titudan baserriarrek jai eta aste jarraitzen dute lanean, dirutan ezer gutxi balio duen esnea saltzeko. Nora noa zaku hauekin? Lotsa ere ematen dit benetako oparirik lortu gabe jendaurrean agertzeak.

Zuloak itxi ordez, sakontzen ari dira; hitzak harrotzen eta harroak ugaritzen. Amezketako eskolarako ez dut hamar hila-betetan Internetarako loturarik lortu. Berdintasunik ez da ia inon ageri, ezta Leidor aretoan antzerki bat ikusteko ere; gehien-gehienek kanpoan ilara luzea egin duten bitartean, bakar batzuek aulki erosoanetan *reservado* papera dute.

Ikatz hau inguruko elkarte baten atarian utzi eta txikiengana hurbiltzea bezalakorik ez dut izango aurten ere, noski. Hauei bai, emango diet oparixoren bana, zintzo bidali baitadate eskutitza urtero bezala. Denek euskaraz igorri didate mezua, baita orain gutxi milaka kilometrotara bizi zirenek ere. Bejondeizuela, asko dakizuela!

KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



ASIER, JOSU ETA OROITZ UNSAIN ▶ MUSIKARIAK, AKTOREAK...

«Musikaren bidez jende asko ezagutu dugu; lagunak egin»

‘Goenkale’ ikusteko elkartzen omen dira gauero familian; bitartean, bere bizitza egiten du bakoitzak; bixkiek, berbera

IRATXE ETXEBESTE

HITZAREN Tolosako egoitzan zenbatetan izan ditugun ez dakigu honezkerok. Kontuak aspaldi galdu genituen. Esan ziguten Zaldibarren, Euskal Herriko Gazteen Trikiti Txapelketan lehiatzeak zirela, eta... hau marka! Bigarren geratu, eta panderista onenaren saria irabazita itzuli dira etxera. Enegarrenez egin diegu elkarriketa Unsain anaia gazteei, eta berriz ere egin behar izanez gero gustura egingo genuke. Atseginak dira, alaiak, biziak... Ez gara inoiz haiekin asperitzen, beti daudelako prest arinarin edo porrusalda piezarik berriena guri eskaintzeko. Ez dituzuela oraindik ezagutzen? **Euskal Herriko Trikiti Txapelketa lehiatua izango zela iragarri zenuten, eta, hala ere, bigarren geratu. Gustura?** Oso. Maila altua zen, eta presio handia genuen, irabazlela pun-

tuka erabakitzen zuelako epaimahaiak. Irabaztea zaila izango zela bagenekien, eta kanporaketatik finalera hirugarren sailkatu ginenez, bigarren postua kentzera joan ginen. **Eta baita lortu ere. Ez da, ordea, sari bakarra izan.** Panderista onenari saria jaso zuen Oroitzek. **Zer nolako giroa zegoen?** Zer nolako giroa zegoen? Txapelketa amaitzean dantzan jardun genuen guztiok elkarrekin. Lehiakide gehienak oso lagunak gara; ez dago ezinikusirik. **Josu, zu ez zara Txapelketan aritzen. Zergatik?** Ez dut balio. Ikustera joaten naiz gurasoekin; anaiek ondo egiten badute, ni gustura. **Urduri jartzen al zarete inoiz?** Asier: Txapelketa baten atarian, beti. Urduritasun hori, hala ere, polita ere bada, egoera berezia delako. **Oroit: Politza diozu? Niri ez zait bada batere gustatzen; gaizki**

pasatzen dut horrelakoetan; finalerdian urduriago nengoen, dena den, finalean baino. **Josu: Hala ere, uste dut behean gaudenok pasatzen dugula gaizkien, anaiek eszenatokia larri-larri irteten dutenean ez delako egoera samurra izaten.** **Kopla ederrak kantatu omen zenituzten. Egia al da?** Kopla berriak ziren, Anjel Mari Pañagarikanok egindakoak. Hark egiten dizkigu txapelketetarako koplak, eta oso politak jartzen dizkigu beti; gaiak ere halakoak, nola ez: euskara, *Euskaldunon Egunkaria*, Gernikako Arbola... Jendeak atentzia jarri zien, behintzat. **Hurrengo txapelketa, noiz?** Txapelketa asko ez zaizkigu geratzen, adinagatik Asierrek ezin duelako batzutan parte hartu. Batzu-batzu izango dira, dena den: Zumaiakoa, kasu. **Antzerki munduan aritzen zinetelako ezagutu zintuztegun. Zer da antzerkia?**

Ondo pasatzeko modu bat. Gozatu, ondo pasatu, eta, gainera, besteie ere ondo pasatuarazteko aukera ematen digu.

Eta musika?

Soinuaren eta musikaren bidez jende asko ezagutu dugu, lagun onak egin.

Parrandazaleak omen zarete hirurak. Gurasoak gustura edukiko dituzue...

Egia esan aita hortxe ibiltzen da, gaueko ordu txikietan batera eta bestera ero modura.

Tolosarrak izanda, Inauterik maiteko dituzue. Zer moztorro jantziok duzue aurten?

Batere ez. Ez zaigu moztortzea batere gustatzen. Lagunekin-eta agian bai, baina beste-l... hobe kaleko jantzita. Lehen moztortzen ginen, baina orain... Adin txoraa izango da!

Asierrentzako galdera: anaia bixkiak izatea zer da, onuragarri ala kaltegarri?

Txiki-txikitatik hala ohitu naiz, eta ez dakit anaia bixkiak ez izatea zer den. Ez dakit berezia ote den edo ez... onerako edo txarrerako, beti bi dira.

Eta zuek, Josu eta Oroitz, zer diozue?

Gu ere hala ohituta gaude, beti dena elkarrekin egin izan dugu eta. Kalean bai, behintzat; etxean sartzean bere bizitza egiten du bakoitzak.

Lehiakortasunik-eta izaten al



JOXE MARI OLARRA
BATASUNEKO KIDEA

«Prozesu bat jarri behar dute abian alde ezberdinek bakea eraikitzeko; seriotasun osoz, presarik gabe»



TXELO ROMEO
IBARRAKO ALKATEA

«Udalak oso argi ditu ideiak; fakturak eskatzen jarraituko du legediaren barruan»

IRITZIA ▶ ARANTXA ITURBE (IDAZLEA)

Eske-kantu-eskean

Kantu eskean eta eske kantuan aritzea ez da gauza bera. Antza badute. Biek hitz berberetzat osatuta egon arren esanahia oso bestelakoa dute. Garai ezin aproposagoa da hau kantu eskean ibiltzeko. Kantari ez dakienak ere aprobetxatzeko modukoa. Eta halaxe aprobetxatzen du batek baino gehiagok. Frogak izango dira aste honetan bertan gure herriko edozein etxe-ataritan. Kantatzeko baimena eskatuta edo gabe hasiko dira doinu eza-gunen baten lehendabiziko notak eskaintzen, eta kantua amaitu baino lehen luzatuko dizute txapela, saskia edo panderoa, txanponak bertan uzteko. Hori da kantu eskean aritzea. Beno, hori, eta baita gogo onez, borondate txarrik gabe, ordutan ensaiatzen aritu ondoren kalez kale gabon kantak aritzen direnen ahalegina ere. Lehendabizikoek, normalean eskeari ematen diote kantuari baino garrantzia gehiago. Bigarrenek kantuari eskeari baino gehiago. Lehendabizikoekin irribarrea egiten du jendeak aurreneko hirurretan. Iluntzerako, gerta liteke bakarren batek atea ez zabalatzeko erabakia hartzea. Bigarrenek, berriz, hunkitu egiten dute jendea. Lehendabizikoak tradizioaren aitzakian poltsikoa betetzeko kantatzeko ahalegina (beno, batzue-

tan hori ere ez!) egiten dute. Bigarrenek, tradizioari jarraitzeko ahalegina.

Eske kanturako berriz, ez dago garai aproposik. Normalean, beharrak aginduta hasten da eskatzen. Hasieran xuabe, aho txikiarekin, ahotsa gehiegi altxa gabe, gero, ozenago, azkenik, eskea kantu bihurtzeraino. Kantu desatsegin, ordea. Eskatzea ez da atsegina, eta eskatu beharrekoa dirua bada, gutxiago. Kantu eskean atez ate ibiltzen diren lotsagabeak ohituz joaten dira eguna aurrera joan ahala, eta lotsa galduz. Gertatu izan zait atea zabaldu eta «ez duzu kantatzea nahiko, ezta?» entzun beharra, pareko gaztetxoak txapela luzatzen zidan bitartean. Eske kantuan ari dena berriz, lotsatu egiten da, eta gero eta gehiago, den-

bora aurrera joan ahala. Ez da inoiz ohitzen bere kantuarekin. Kantu desafinatua da eskearena. Eta inork ez du entzun nahi. Eta jendea ez da hunkitzen eta ez da kantua entzuteko geratzen. Eske kantuak aspertu egiten du jendea, beti-betikoa delako, eta aldiz, kantu-eskeak hunkitu, arrazoi bera-gatik.

Hontaraino iritsita ez da sobran egongo, sobra ere antzemango zuen bakarren batek, hainbeste eske eta hainbeste kantu HITZARI laguntzeko eskatzeko direla. Badu grazia kantu eskea gogoko ez duen batek eske kantuari notak jartzeko ahalegina egiteak.

Mundua Gabonak bezalakoa balitz, alegia, denok zoriontsu bagina, eta denak elkartasuna adierazteko prest bageunde, eta denok egun zoragarriak opako bagenizkio aldamenekoari, HITZAKO jendeak ez luke eske kantuan ibili beharrik izango. Baina Gabonak urtean behin bakarrik dira, zorionez, eta ez legoke gaizki, behingoagatik eskean ari denari ematea. Baita beti kantu bera kantatzen badu ere. Gainera, informazio orri hauek badute opari itxura: dohainik iristen dira gure etxeetara egunerok. Ordainduta, baina dohainik. Alegia, Eguberrietako opariak bezala.

HITZA

«Mundua Gabonak bezalakoa izango balitz, HITZAKO jendeak ez luke eske kantuan ibili beharrik izango; ez legoke gaizki, behingoagatik, eskean ari denari ematea»



PERTSONALKI ▶

▶ Tolosan jaioak ▶ 1987ko urriaren 12an eta 1990eko marxoaren 27an ▶ Ikasten ari dira hiru anaiak, Laskorain ikastolan ▶ Musika eta antzerkia dute gustuko ▶ Parranda ere bai... ▶ Zaharrenak enpresaritza ikasi nahi du, eta beste biek ere atsegin dute hori ▶ Banatu ezin! ▶ Tolosan bizi diren arren, «aukeran Altzo edo Baliarrain nahiago», aitaren eta amaren herriak, hain zuzen ere.

TXAPELKETAK

«Ez zaizkigu asko geratzen, Asierrek adinagatik ezin duelako parte hartu; batzuk izango dira, hala ere»

duze elkarren artean?

Oroitz: Ikasketekin, adibidez, ezin-eman latza du Josuk berak baino emaitza hobek ataraten ditudanean. Lehia gisa hartzen ditugu horrelakoak. Josu: Jolas modura egiten dugu biok; Asier, ordea, ez da konturatu ere egiten.

Arropa berdina jantzita irte-ten al duzue beti kalera, gaurko moduan?

Josu: Anai zaharrenak eta lehengusuak erabilitako arropak jantzen hasi garenetik, gero eta

gutxiagotan. Antzeko gustuak ditugulako izaten dugu arropa berdina: ez dago bestelako arrazoirik.

Oroitz: Hala ere, trikimailuak baditugu zapatilak-eta norenak diren jakiteko. Adibidez, Josuk beti ohearen alde batean uzten ditu lokarriak goruntz jarrita, eta nik badakit horiek bereak direla. Bestela, janzterakoan nabaritzen da aldea.

Ametsik edo ilusiorik ba al duzue?

Josu eta Oroitz: Handitzean la-

na bilatzea, etxebizitza bat erosteko aukera izatea eta autoa gidatzeko baimena ateratzea. Eta bitartean, aitari lana ez faltatzea, unibertsitatea-eta ordaindu egin behar direlako.

Dagoeneko hasi al zarete, bada, unibertsitatean pentsatzen?

Asier: Nik datorren urtean hasi behar dut unibertsitatean; ziu-rrenik enpresaritza ikasketak egingo ditut.

Josu eta Oroitz: Guri ere gustatzen zaigu enpresa mundua.

Ilusioa sartu digute enpresaritza ikasteko. Ahal izanez gero, unibertsitatera ere elkarrekin joango gara biok, eta Asierren apunteekin errazago aterako dugu (kar-kar).

Humorista lanetan ibiliak zaretenez, gogoan duzuen zelebrekeriarik?

Aitarekin pasatzen dugu ondo; berak kontaktzen dituen gauze-kin barre galantak egiten ditugu. Bera bada humorista. Baserrikoak, eta baserriko jende-ak grazia izaten du askotan

gauzak kontaktzeko. Behin Eurodisney-en izan ginen, eta tren batean sartu genuen aita. Berak beldurra die halakoei, eta mugitu ere egin gabe egon zen bertan. Hark ez, eta beste laurok pasatu genuen ondo.

Bidaizteza gustuko duzue? Ezagutu nahi genituen lekuak ezagutu ditugu; ez gara oso bidaiztekoak. Gehiago ezin da, eta ezin dena eskatzea ere... Gainera, badakigu hemen bezain ondo ez dela inon egoten. Hondartza izanda, nahiko.

ABENTURA >

Asiako Mekong ibaia eta Hego Amerikako Che Guevara, abentura berriaren ardatzak

Angel Cuervo eta Fabiola Jubin tolosarrek zortzi hilabeteko bidaia hasi dute; garraio mota desberdinak erabiliz hamahiru herrialde ezagutzeko asmoa dute



EDURNE AVUSO

iragarki laburrak

Vital Kutxa. 70 lanpostu libre. Sarrerak kalde. Matrikulaio meka. Informazioa duan: 943 65 01 93 telefonora deitu.

Haur Hezikuntza. Plaza libreak haurtandeg publikoetan, haur eskolatan. Informazioa duan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

Gidiariak. Laster sarrerak udatetan eta Euzko Jaurlaritzan. Informazioa duan: 943 65 01 93.

Sukaldari laguntzaileak. Plaza libreak eskolatan, egiztatan. Euzko Jaurlaritzan. 943 65 01 93 telefonora deitu.

Poltsak. Ekiditzaileak, iturriak, soldatzaileak, igeltoiak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.

Administrazio laguntzaileak. 65 01 93.

Laster sarrerak udalbehe hauean: Hernan, Ibañeta, Irujo, Beasain, Atoño, Bergara, Zornotza, Madruka, Zizurkil, Mendatxo, Anotoa. Informazioa duan: 943 65 01 93.

Poltsak. Ekiditzaileak, iturriak, soldatzaileak, igeltoiak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.

BIDAIA

Bi atletan egingo dute: Asian pasatuko dituzte lehen hiru hilabeteak, eta ondoren joango dira Hego Ameriketara

KOMUNIKAZIOA

Munduko bi hizkuntza nagusiak erabiliko omen dituzte Cuervok eta Jubinek bidaian; musika eta irribarreza

Goaz, baina itzulituen garenaren gauzak orain dauden bezala aurkitu nahi ditugu eta horrek lana eskatzen du. Bestalde, bidaia egin aurretik beharrezkoa da ondo informatea. «Birmanian, adibidez, badakigu egin gurela errepideak sartu, gainera, mugak ez daude oso argi, esaten dugu, baina gero pasatu zer eharriko digun ikusi beharko da».

Ahaztu baino ordu batzuk lehenago Hiriziren hitz egin da bikote tolosarrek, eta biek esan dutenez, lasa samar daude azkenean, «unselaren bukaeran begibetan dute. Maletak arin eta bihotzak beterik ekingo diote euren bizitzako ametsari».

Ametsetik, errealtatara

Angel Cuervo beti izan da oso ameslaria. «Milaka bidaiak, milaka ideiak eta kezak ditut buruan. Orain arte bidaia ugari egin ditut, «baina, baziren batzuk denbora epe luze bat behar zutenak, modu dim baten egin ahal izateko. Tolosar gazteak aspaldian zuten lasa bi daitezko urtebeteko tartea hartzeko asmoa, baina kananen eta egunerokotasunaren purpila ez dio orain arte ilusio hori burutzen utzi».

Bikoteak hasieratik zuten argi Asia eta Hego Amerikara joan nahi zuela, baina, ibilbide zehatz bat hautatu behar izan dute, «zortzi hilabetetan ezin baita Asia eta Hego Amerika osoa ezagutu». Bidaia bi atletan egingo dute. Asian pasatuko dituzte lehen lau hilabeteak eta Tolosan asetebete ekoz pa-

BI BIDAIAK



Hego Amerika
Garraldea: Mota: Astea: Che Guevara filosofia jarraitza, Hego Amerikako ahal den herrialde guztien errepideak, eta ibilbide egokienak. Desbora: 3 hilabete erdi.



Asiako hego-ekialdea
Garraldea: Mota: Mota: Astea: Che Guevara filosofia jarraitza, Hego Amerikako ahal den herrialde guztien errepideak, eta ibilbide egokienak. Desbora: 3 hilabete erdi.

satu ostean Hego Amerikara joango dira. Cuervok Hirizari adierazi dionez, orain arte ibai asko zeharkatu baditu ere, bazen bereziki bat ezagutzeko gogoak: Asiako Mekong ibaia. «Mekong da Asian herrialde gehien zeharkatzen dituen ibaia, 4.200 kilometroko zeharkaldia egingo da. Gainera, bere baitan birizta izugarria duen ibaia da, denetarik ibai ibilek, eskolak, supermerkatuak, herriak... Agian, munduko ibairik biziena izango da».

Mekong ibaia ardatz gisa hartuta egingo dute Asiako egoaldia. Bangkoketik abiatu eta Ho Chi Ming-eraino bidaiatuko dute Thailandia, Birmania, Txina, Laos, Kambodja eta Vietnam zeharkatzeko asmoa dute, baina ahan bertan, eguneroko gertaerak moldatu beharko dute ibilbidea. Edozein kasutan ere, «garrantzitsuena, bertako bizilagunak ezagutzeko izango da, hori izaten baita aberagarria».

Nahia eta ibilbide moduan bidatu behar dute, ez dute aialatu nahi lekuan lekuko jendea ezagutu nahi dute Manduaren handitasunaz eta aberastasunaz jaketu nahi dute. Cuervoren aburuz, «munduko beste herrialde batzuk ezagutzeko zure burua ezagutzen laguntzen dizut; zure mugak handitzaiek eguneroko bizitza beste modu batera ulertzen laguntzen dizut». Jendearekin komunikatzeko munduan dauden bi hizkuntza ezagunenak erabiliko omen dituzte: musikarena eta irribarrearen. «Pertsona bat Txinan, Thailandian edo eta Venezuelan irribarre badiago, seinale gustura dagoela».

Komunikatzeko sistema moduan ibera erabiliko dute, «eska saltoa, txingoa, kanketara» jolastu sortu nahi dute komunikazioa. Komunikazio herri, gainera, elkartruke bat

izango da, zerbitu irakastan eta ikasten saiatuko dira. Gainera, «herrialde bat itxigapoa den heinean, gero eta jakinmin handiagoa izaten dute», dio abenturazale tolosarrek.

Bertakogengana hobeto moldatzeko, tolosarrek tolosarretara etorritako dira. Cuervok azaldu digunez, «Birmaniak muga, adibidez, eleanizte izugarri du. Thailandian ia jende gehiena motorrez ibiltzen da, gu ere zergatik ez gara motorrez ibiliko? Bada, horixe egingo dugun».

Che Guevararen bidetik

Asia ezagutzeko gainera, Hego Amerikako errealtateak ere jakitu nahi dituzte. Hego Amerikara, Angel Cuervok berehala bururatu omen zitzaion, eguneroko gertaerak moldatu beharko dute ibilbidea. Edozein kasutan ere, «garrantzitsuena, bertako bizilagunak ezagutzeko izango da, hori izaten baita aberagarria».

Nahia eta ibilbide moduan bidatu behar dute, ez dute aialatu nahi lekuan lekuko jendea ezagutu nahi dute Manduaren handitasunaz eta aberastasunaz jaketu nahi dute. Cuervoren aburuz, «munduko beste herrialde batzuk ezagutzeko zure burua ezagutzen laguntzen dizut; zure mugak handitzaiek eguneroko bizitza beste modu batera ulertzen laguntzen dizut». Jendearekin komunikatzeko munduan dauden bi hizkuntza ezagunenak erabiliko omen dituzte: musikarena eta irribarrearen. «Pertsona bat Txinan, Thailandian edo eta Venezuelan irribarre badiago, seinale gustura dagoela».

GIZARTEA >



Sariak, herenegun, udalbelako batzar antolatuan, pozarren, irribarre...

Eskerrak zuei

Galtzaundik herenegun banatu zizkien sariak Elolari, Alurri-, Mozori eta Altunari

IRATXE ETXEBESTE

Galtzaundi Euskara Taldeak herenegun banatu zituen, bigarrenak. Eskerrak zuri sariak. Kiroi, kultur eta giza asan arloetan eskualdeko pertsona edo erakunderen batek egindako lana eskertze aldera eskaintzen dituzte sari horiek, eta aurtengo Jose Ignacio Etxebarria dantza taldeari ematekoan.

Gaztetasun alorrean, adiz, Teo Mozok egin duen lana saritu nahi izan zuen Galtzaundik: «Bere bizitzako hainbat ekiditei lotura emateko hiru oinarri hartu behar dira konpainia haurrak mailatzea, sinismena eta Euzko Herria mailatzea. Hiru ardatz horiek eragindako eraman dituzte aurrera hainbat konpromiso».

Eskerrak zuri sarietan berezia ematekoan ez zuten egun mahaiak zalantzarik egin. «Euzko Herria, Berastegioko semea, Historiarreko Arkeologian aditua, ibertalako esperrenza izan da bere bizitza osoan, gure arbasoek utzi ziguten Ondarra Arkeologian zintzotasia, historiarreko aurkiturten dibulgatzailea eta gauza guztien gainekigun xumea, apaia eta langile boteretsua. Eskerrak guriak, eta zorianak».

«GURE BASERITARREN PRODUKTUETZ OSATURIKO SASIAK, ALKERAN»

ERREMENTARI, 38 TOLOSA 943 11 80 77

Errementari koleo z/g TOLOSA Tel.: 943 67 16 30

LENTZERIA

GIZON ETA MUTILENTZAT

Pijamak, botoiak, boxer's, komisetak galterdiak

TOLOSA ▶ GABONETAKO AZOKA BEREZIA

Gabon giroa postuetan

Euriari aurre eginez, atzoko azoka berezia oso jendetsua izan zen; Zerkausiko lehiaketak, odolki onenaren saria eta Plaza Berriko ekitaldiak ikusgai izan ziren

IÑIGO TERRADILLOS
IMANOL GARCIA

Gabonetako Azoka Berezia izan zen atzo, eta euria egun osoz ikusi bazen ere, jende ugari gerturatu zen azokako produktuak ikustera. Aurtengo azoka, gainera, berrikuntzekin aurkeztu zen; batetik, Trianguloan, Zerkausian eta Plaza Berriari jarri zituzten postuak, eta bestetik, egun osoan zehar izan zen aukera bertako nahiz nazioarteko artisau produktu onenak ikusteko eta erosteko eta baita landareak, Gabonetako ohiko apaingarriak eta elikagaiak eta Tolosako konfiteariaren produktuak ere; guztiak kalitateagatik bereizten direnak. Goizean zehar bi lehiaketa nagusi izan ziren: bata Zerkausian egindako produktu onenen lehiaketa, eta, bestea, Trianguloan egindako odolki onenari saria.

Zerkausian

Urte osoan egindako lana kontuan hartuz aukeratu zituzten fruta, barazki, Errezilgo sagar, postu onena eta barietate handieneko postuak. Mailla bakoi-tzean lehenengo onenak 100 euroko saria irabazi zuen, eta bigarrenak 40 eurokoa.

Barazkirik onenetan Kaxi Izagirre ibartarra izan zen irabazle. Lau urtetan zortzigarren aldiz irabazi du, eta oso pozik jaso zuen saria. «Asko gustatu behar zaizu eta lan asko egin behar da, produktuak ondo zaindu eta guztia ondoren txu-



Triangulo plazan jarritako karpata jendea erruz gerturatu zen produktuak ikustera eta erostera. I. GARCIA

kun prestatu behar duzu), aipatu zuen ibartarrak sari banaketaren ostean.

Postu politena Urrestillako Ibarzabal baserriko Pilar Unanuek eman zuen. Gustura zegoela, eta goizean goiz etorri zela dena ondo apaintzera adierazi zuen. Urrestillarrarentzat ere ez da lehendabiziko aldia sari hau irabazten duena eta «lan gogorra eta egunero-koa» dagoela horren guztiaren atzean aipatu zuen.

Barietate handieneko postu bezala Eugeni Agirretxe berro-

bitarrarena aukeratu zuten epaileek. Irabazteko itxaropena bazuela eta etxean lan dezente egin behar dela sari hauek lortzeko adierazi zuen saria pozarren jaso ostean.

Errezil sagarretan, berriz, Joxe Antonio Aizpuru errezil-darrak eraman zuen lehenengo saria. Sorpresaz eta alai jaso zuen, «karbolak asko zaindu eta urte osoan lan handia egin eta gero», merezitako fruitua jaso baitzuen Aizpuru.

Fruta onenari saria Antzuolako Angel Arregik lortu zuen,

beste behin. Ez du sorpresarik hartu: «Egia esan, espero nuen saria lortzea. Udazkeneko eta neguko denboraldian zehar sagar barietate ugari ekartzen ditugu, eta baita udare mota ezberdinak eta irasagarria ere».

Epaile lanetan Tolomendiko teknikariak aritu ziren. Neguko denboraldi guztian egin diote jarraipena larunbateko azokari eta maila handia azpimarratu zuten, batez ere barazkietan. Atzoko azokan laguntzaile bereziak izan zituzten Tolomendi-

SARITUAK ▶

BARAZKI ONENA

1. saria. Kaxi Izagirre (Ibarra).
2. saria. Maite Aranzabe (Anoeta).

FRUTA ONENA

1. saria. Angel Arregi (Antzuola).
2. saria. Maritxu Eraso (Leaburu).

ERREZIL SAGAR ONENA

1. saria. Jose Antonio Aizpuru (Errezil).
2. saria. Miren Agirrezabala (Gabiria).

POSTU POLITENA

1. saria. Pilar Unanue (Urrestilla).
2. saria. Axun Aizeburu (Alkiza).

BARIETATE HANDIENA

1. saria. Eugeni Agirretxe (Berrobi).
2. saria. Aldaba Zahar Elkarte (Aldaba, Tolosa).

ODOLKI LEHIAKETA

1. saria. Jesus Maria Deba (Ezkio-Ixaso).
2. saria. Javier Mujika (Ordizia).

koek. Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak bultzatu duen Mendi Eskolako bi kide pakitanian izan ziren azokari begirik kendu gabe. Hemengo postuetan aurkitzen diren antzeko

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAU EK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



Zerkausiko lehiaketa ezberdinetako irabazleak Udaleko eta Tolomendiko ordezkariekin. I. GARCIA

barazkiak dituzte beren herrialdean. Hangoak, ordea, txikiagoak omen dira, batez ere eguraldia ez delako hemen bezain euritsua.

Odolki goxoena

Presentzia, xehatze maila, zaporea eta egitura izan ziren odolki lehiaketan haintzat hartutako irizpideetako batzuk. Aurkeztutako odolkiaren kalitatea azpimarratu zuten epaimahakideek. Lehenengo saria Ezkio-Itxasoko Jesus Maria Debarentzat izan zen; bigarrena, Javier Mujika ordiziarrek lortu zuen. Familia guztiak egiten du lan Jesus Maria Deba enpresan. «Odolkia asko mimatzea da sekretua», azaldu dio HIRZARI saria jaso zuen Milagros Elias familiako amak.

Lehiaketez gain, bazegoen zer ikusi eta zertan parte hartu atzoko azoka berezian. Triangulo plazan, meta baten azpian zeuden euskal arrazako txerri ama eta bere kumeak ikusten gozatu zuten batez ere txikienekin. Izan ere, euskal arraza ari da berreskuratzen Bidegoian-go Pello Urdapilleta txerri-hezitzailea, eta postua jarri zuten txerri mota horretako produktuekin.

Plaza Berrian ere izan zen gozatzeko aukera egun osoan zehar. Eguerdian, Samaniego-ko ikasleek kontzertua eskaini zuten hauen CDko kantak aurkeztuz. Bestalde, goiz osoan haurrentzako keramika tailerra izan zen eta arratsaldean haurrek postala bidali zioten Olentzerori. Irazki elkarteak opariak eskuz egiteko aukera eskaini zuen eta haur jolasak ere antolatu zituzten. Gauean, musika izan zen protagonista Ecuadorreko eta Kubako talde-



Odolki oneraren irabazlea, alabarekin; alboan, Tolosako alkatea. I. I.



Haurrak keramika tailerlean Plaza Berrian. I. TERRADILLOS

ek dantza latindarrak eskaini baitzituzten.

Egun borobila atzokoa, denetarik izan baitzen egun osoan eta soilik euririk jarri ahal izan zion alderdi txarra. Gabonetako Azoka Berezia inoizko bereziena izan da aurten.

AZOKA ▶

Gabonetako Azoka Berezia arrakastatsua izan da oso

Asko lagundu du bai erosle kopuru altuak eta baita ordutegiaren zabaltzeak ere

PABLO ALBERDI

Aurtengo azoka bereziaren arrakasta izugarria izan da. Alde batetik, erosleen kopurua oso altua izan da aurten, eta nabaritu da ordutegiaren zabalerak lagundu egin duela jende pilaketarik ez egoteko. Bestalde, aurten ikusitako produktu eskaintza benetan izugarria izan da. Inoiz baino postu eta eskaintza gehiago izan da, eta denetatik zegoen eskuragarri azokan.

Barazki eta fruta eskaintza izugarri zabala zen, nobedade askorekin eta produktu ugartasun handiarekin. Horiez gain, mota askotako produktuak izan ziren, besteen artean, gazta, ogia, barazki kontserbak, arrai kontserbak, mota askotako haragia, postreak, jostailuak, artisauro produktuak, bai larruzkoak, egurrezkoak...

GABONETAKOIA ▶

Barazkiak	merk.	gares.
Lilia	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Pentsamentua	1,00	-
Perrexila	0,05	0,06

Bertako produktuak

Uxoa	5,00	-
Gaztaina	2,00	3,00
Tolosako babar.	8,00	12,00
Patata	0,66	1,00
Kalabazina	0,72	-
Ogi bologikoa	2,43	-
Arto ogia	3,50	-
Ardi gazta	12,50	14,00
Inbixaurrak	4,00	6,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60
Azukrea	3,35	-
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Dillistak	2,40	-
Kalabaza	1,60	-
Lebuxa	0,80	1,00
Eperra	7,00	-

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea. Osasun z.: 653212
- Anoetalde. Medikua: 65 23 39
- Asteasu. Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain. 68 33 61
- Bidegoian. Medikua: 68 11 34
- Ibarralde. Osasun etx.: 672411
- Leitza. Osasun z.: 948 510800
- Lizartza. Medikua: 68 20 77
- Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aiztondo. Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur. Tolosa M.I. Kale Nagusia, 7 (Tolosa). 943 67 06 48.
- Larraia M.I. Elbarren 95, (Leitza). 112.
- Bihar. Santa Maria I. Nafarroa etor., 2 (Tolosa). 943 65 46 10.
- Plaza M. Elbarren 36, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea. 661 67 88 18. tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
- Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko-hitza.info
- Villabona-Aizt. 687 41 00 22. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
- Anoetalde. 687 41 00 22. anoetalde@tolosaldeko-hitza.info
- Ibarralde. 687 41 00 32. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
- Alegialdea. 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
- Leitzalde. 687 41 01 18. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

- Altzariak.** Garbigailu berria eta sukalde bitrozeramika labarekin salgai. 639 567 159.
- Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 674 806 edo 943 117 738.
- Motorra.** Yamaha YZ 250 salgai. 2002koa, ondo zaindua eta extrekin (aukera). 4.200 euro. 639 567 159 (Joxe).
- LANA**
- Zaintzailea.** Pertsona bat behar da lau orduz esne behi ikuitu batean lanean aritzeko. Beharrezkoa izango da autoa eta esperientzia izatea. Deitu 665 733 356 zenbakira.
- Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 69 19 33.



Promozioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 19a, igandea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzaga, Adara, Albitz, Aego, Alkiza, Altza, Amerleña,
Arosca, Balaiztan, Beldarza, Berastegi, Etxeain, Herrialde, Ibarra, Irua,
Lamiel, Lumburu, Lumburu, Orendain, Orens, Tolosa, Villanova, Zuzuri
besteriak: Leizaldeko Euskara Batordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurfarieta
Kultura Salla

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzena

09

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALAREN



Guardetxe:
gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:
gaur: ez / bihar: ez

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Gaztain-jatea, plazan,
17:00etatik 20:30era.
Alegia. *El filling es así*
antzezlan, Teatro taldeak

eskainia. 19:00etan,
Gaztetxean. 17. urtemugan.
Alegia. Iruñeko Gaztebako
desalojoaren ikus-entzunekoa.
Bihar, 21:30ean, Gaztetxean.
Alkiza. Gurasoentzako
hitzaldia, Garbiñe Merinoren
eskutik. 16:15ean, eskolan.

Ibarra. Kirmen Uriberen poesia
errezitaldia. 18:30ean,
Gaztetxean. Kultur Astea
amaizteko.
Tolosa. Gazte Topaguneak
antolatutako pegata lehiaketako
sari banaketa. 18:00etan,
Kultur Etxean.

Tolosa. Dantzaldia Iribarren
taldearekin. 18:30etik
20:30era, Harizpe elkartearen.
Tolosa. Pilotoak
automobilismoaz: Ander
Vilariño, Gorka Apalantza eta
Iñaki Alberdi. Bihar, 19:00etan,
udaletxean. Kirol Astearen.

Tolosa. Odol ematea. Bihar,
18:30etatik, Kultur Etxean.

ZINEMA

Tolosa. *El lobo.* 17:00etan,
19:30ean eta 22:30ean,
Leidorren. Bihar 17:00etan ez.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Nahia Dominguez Iribarren
(Tolosa). Gaur 8 urte.
Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN

Maialen Berasategi (Tolosa).
Gaur 5 urte. Aita, ama eta zure ahizpa
Izaskunen partetik. Ondo pasa.



URTE ASKOAN

Txomin Urdanpilleta Mujika
(Anoeta). Bihar 6 urte. Zorionak
etxekoan partetik. Aupa Errealai!



URTE ASKOAN

Imanol Irazustabarrena
(Alegia).
Harnaika holako... Zorionak!

HITZA, zorion agurren

tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!



URTE ASKOAN

Ana Belen Egues. Gaur 36 urte. Euskal presoak Euskal Herrira. Zorionak denon partetik.



ZORIONAK, IZEBEA ANABEL

Muxu handi bat Marenen
partez. Jo ta ke irabazi arte.



URTE ASKOAN

Zorionak aitabo, biharko
partez. Etxekoan partetik,
batez ere, Nerearen partetik.



ZORIONAK, JOSELU

50 urte.



URTE ASKOAN

Ana Belen Egues. Gaur 36 urte. Orain herria, orain bakea. Zorionak, Anabelentxu!

HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun
egoitzan
lor dezakezu

Modelo eta kolore
ezberdinak
neska nahiz mutilentzat

Zatoz zurearen bila!
TOLOSAko eta LEITZAko
egoitzetara